

TREBAKUNTZA 2014-12: ERDARAKADAK III

Udal idatzi askotan erdarakadak sartzen dira, hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, esamoldeak eta abar euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo esamolde jatorrak baztertuta. Gaurko hau erdarakaden inguruko hirugarren fitxa da.

OHARRA: *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

1. **Siesta ederra **bota** dugu arratsaldean.*
2. **Arazo hori 16 urteko gazteengan **ematen da.***
3. **Hortik dabil kultur teknikaria? Ez, asteon **Bilbotik dabil.***
4. **Beste egunean hitz egin zuen, kirolaren onurei buruzko jardunaldietan.*
5. **Auzokoekin daukagun arazoa **sakonki** aztertu behar da.*
6. **Posible da hirigintzako arduraduna ere etortzea.*
7. **Atxondorako bidea **moztu** egin behar izan dute.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Gaztelaniazko “echar la siesta” esamoldearen kalkoa da, baina euskaraz “siesta egin” da jatorragoa.

Ad. Siesta ederra egin dugu arratsaldean.

2. Gaztelaniazko “se da” aditzaren kalkoa da. Euskaraz jatorragoa da “gertatzen da” edo antzeko aditzen bat erabilita.

Ad. Arazo hori 16 urteko gazteen artean gertatzen da.

3. Gaztelaniazko “por ahí” esamoldearen kalkoa da.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Ad. Hor dago kultur teknikaria? Ez, asteen **Bilbon** dabil.

4. Gaztelaniazko “el otro día” esamoldearen kalkoa da.

Ad. Lehengo egunean hitz egin zuen, kirolaren onurei buruzko jardunaldietan.

5. Kasu honetan, adberbioak ez dauka atzizkiaren beharrik, nahikoa da “sakon” esanda. Beste adberbio batzuekin ere gertatzen da gauza bera: *ozenki, gogorki...*

Ad. Auzokoekin daukagun arazoa sakon aztertu behar da.

6. Gaztelaniazko “es posible” esamoldea behin eta berriz erabiltzen dugu, euskarak baliokide jatorragoak izan arren:

Ad. Baliteke/litekeena da hirigintzako arduraduna ere etortzea.

7. Gaztelaniazko “cortar” hori zuzenean itzultzen dugu sarritan, baina euskarak badauka bere-berea den forma hori esateko.

Ad. Atxondorako bidea itxi egin behar izan dute.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99